

Aretxagazeta

Aretxabaleta ● Ale berezia ● 196. zka.



Lau egun jai giroan



Neurrira egindako estoreak, kortinak, bandoak, edredoiak, eta neurrira moztutako oihalak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

UDAL EUSKALTEGIAK



2000-2001 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

Euskalduntze,
alfabetatze maila guztiak,
EGA.

Mintzarena lantzeko talde bereziak.
Sakontze ikastaroak.

Erritmoak

Eskarien arabera, erritmo desberdinak
eskain daitezke. Galde ezazu!

Bulego ordutegia

Goizez 09:00-13:00 • Arratsaldez 15:00-19:00

Matrikulatzeko epea

Irailaren 4tik 22ra.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu
16 urtetik gorakoentzat.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

ARETXABALETA
Nafarroa, 2-4
Tel.: 943 79 21 68

ESKORIATZA
Fernando enparantza
Tel.: 943 79 21 68





EZ DITUGU NAHI, ESKERRIK ASKO!

Abuztuaren

15ean goizaldeko 7etan, Atxabaltako txosnagunean kokatzen da gaurko istorioa. Ertzainek gaba guztia probokatzen pasa ondoren, azkenik lortu zuten beraien helburua: jai giroa puskatzea gazte bat atxilotuz eta jendea zaurituz (porrekin eta pilotakadekin). Bestalde, animalia hauen aurrean, jendearen jarrera benetan txalotzekoa izan zen hauei berba eginez baina, jakina, hauek handik alde egiteko, gaztea askatzeko eta bakean utzi gaitzatela ez zuten ulertzen (errepresioaren hizkuntza ulertzen dute soilik).

Arrasateko basean berriro horrelakorik gerta ez dadin handik ez agertzeko eskatu arren, hor izan genituen zain hurrengo egunetan ere, eta nola ez, berriz ere ekintza basati hau salatzeko egindako panel informatiboa eramanaz beraien adierazpen aska-

tasunaren aldeko apostuaz jabetu ginen.

Guzti hau ikusirik garbi daukagu:

ERTZANTZA EZ DA
HERRIARENA!

ERREPRESIOA EZ DA
BIDEA!

EZ DITUGU ATXABAL-
TAN EZ INGURUAN NAHI,
ESKERRIK ASKO!

Txosna batzordea

Aretxagazeta

196. zenbakia -- Ale berezia
Andramaixak 2000

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail:
aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako
komunikabideak-Loramendi elkar-
tea.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:

Begoña Arenaza, Arrate Arkauz,
Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta,
Arantza Antxia, Mireia
Uribetxebarria, Goretti Ayastuy,
Ibon Agirre.

Erredakzio arduraduna eta publi-
zitate arduraduna:

Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak:

Mikel Arroibe, M. J. Aretxaga,
Joseba Lopez de Armentia, Inma
Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran
de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaileak:
Aitor Urrutia.

Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egi-
ten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da
kargu egiten aldizkarian adierazi-
tako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila

Debagoieneko komunikazio enpresa batek

TELEBISTAKO ERREDAKTORE BURUA behar du

Erredakzio taldea zuzenduz, telebistako albiste
zerbitzuen ardura izango du.

Eskatzen da:

- Kazetari izatea, telebistan espe-
rientziaduna.
- Lantaldeak zuzentzeko gaitasu-
na.
- Euskaran eta ordenagailuen era-
bileran maila ona.
- Gidatzeko baimena eta autoa.

Interesatuak kurrikuluma eta argazkia bidali,
irailaren 18a baino lehen, ondoko helbideetako batera:

estenibar@euskalnet.net edo 95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96


Zer moduz Andramaixetan?

Zer da gehien gustatu zaizuna? Datorren urterako gomendiorik?




Miguel Elorza

Ondo, Andramaixetan beti ondo. Hirugarren eguneko txaranga gustatu zait gehien, giro ona jarri baitu.



Jon Ander Mendieta

Oso ondo. Jotak, mexikarrak, dena gustatu zait. Ni atxabaltarra naizenez, dena izan da gustukoa. Hurrengorako zezenei denbora gutxiago eskainiko nieke.



**Garazi Oihanguren
eta Alazne Diaz**

Oso ondo. Gaua izan da onena. Aurtentzen "autotxoak" faltan bota ditugu, eta baita kontzertuak ere.



Toñi Arribas

Oso ondo, batez ere hirugarren eguna. Gainontzeko egunetan ez da giro haundirik egon, hala ere, jaietako onena bazkari herrikoia izan da.

POSTAL LEHIAKETA

Lehenik eta behin eskerrik asko uda honetan ere gurekin gogoratu eta postala bidali diguzuen guztioi. Aurreko urteetan bezala hainbat lekuetako postalak heldu zaizkigu aurtengoan ere, Euskal Herritik hasi eta munduko leku exotikoenak barne.

Zozketa egin ondoren aurtengo lehiaketa Resu Abasolok irabazi du. Berarentzat izan da, beraz, afa-

ria. Zorionak!

Gainontzeko guztiontzat ere badaukagu oparitzo bat: **Aretxagazetako kamiseta bat**. Datozen egunetan pasa zaitezte Aretxagazetatik postala bidali duzuen guztiok erregalua jasotzera.



Ezkerrean Euskal Herritik jasotako postalak, erdian Espainiakoak eta eskuman Europa eta mundu zabaletik bidalitakoak. Eskerrik asko guztioi.





Paregabeko giroa Andramaixetan

Behin iraila helduz gero oporrak atzean geratzen dira gehienontzat, eta zer esanik ez abuztu erdian ospatutako Andramaixak. Atxabaltarrok oraindik ere badakigu herriko jaietarako herrira bueltatzen, eta etorri ginenon eta joan ez zirenen artean giro polita sortu genuen lau eguntan zehar.

Aurtengo egitarauak ez zuen berrikuntza haundirik ekarri, mus txapelketa pilota parti-

duak, sokamuturra, hainbat antzerki... argi dago, ordea, ekintza eta ikuskizunek baino gehiago herritarrek egiten dutela giroa eta halaxe erakutsi zuten aurtengo jaiak.

Egun horietan herrian izan ginenon artean, oroitzapen goxoa utzi dute eta herriko jai nagusiak izanik erreparatutxo txiki hau merezi dutelakoan gaude. Hona hemen agerian egindakoak, ezkutuan egindakoak norberak konta ditzala.



■ 44 bikote musean, tartean emakumezko bakarra, datorren urtean gehiago izango ete dira.



■ Ez dago aspertzeko aitzakiarik, denok jolaser!

Atxabaltarrak poliki-poliki hurreratu ziren euren opor lekuetatik herriko jaixetara. Andramari bezperan ez zen jende gehiegi ageri kalean. Hori bai mus txapelketak gizonetzko ugari erakarri zituen plaza ingurura, batzuk jokatzeko eta beste batzuk albotik begiratzeko. Lehenengo postuak, kanpo-

tarrentzat izan ziren Roman eta Unamunorentzat lehenengoa eta Luma eta Vicenterentzat bigarrena.

Ume eta gaztetxoek ere izan zuten jolaserako aukerarik, bai horixe, umeak falta oster! Buruhaundiak aspertu egin behar kalean gora kalean behera umeak ezin topatuta.



■ Kanpotarrak irabazle, Roman eta Unamuno.



■ Buruhaundiak ume bila, non sartu ete ziren?

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 82 44

Martín

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72

Bere bezeroen zerbitzura

San Migel
erretegia

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71




■ Jende ugari bildu zen ikurriñari agurra ikusteko

Meza ostean eta eguzkiaren azkenengo brintzak testigu zirela, ikurriñari agurra egin zitzaion udal batzordearen aurrean. Udaltxeko balkoitik alkateak esandako berben ostean, txupinazoa bota zen jaiei hasiera ofiziala emateko.

Gauean, barriz, dantzaldia eta bolo txapelketa, aurtengoa 15. izan da gainera. Zahar eta gazte, denetik bildu zen bertan, baita gazte batek irabazi ere Iñaki Elorzak, honen ostean Migel Arana, Jesus Aranzabal eta Latasa.



■ Andoni Miguelek dantzan eragin zion ikurriñari balkoitik.



■ Gogoia jarri bai baina ezin!



■ San Inazio eguneko txapelduna Fernando Elorza eta Andra maixa bezperakoa Iñaki Elorza. Etxean entrenatzen ete dute?



Taberna Berri jatetxea

Durana, 26 • ARE-TXABALETAK
☎ 943 79 20 67

Lasai

Mirian Manteca

MASAJISTA

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta egokitzean
diplomatua

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Tel.: 943 77 04 34



■ Andramari egunean meza nagusian izan zen udalbatza.

■ Dotore jo zuen lehenengo kalean eta gero plazan Trintxerpeko bandak. Ez zen, ordea, gazte ugari hurbildu kontzertua entzuterara, aurreko gaua gogorra edo?



■ "Alkate soinua"ren txistu hotsez udalbatza kalean behera.

Txistulariek eman zioten egunona Andramari egunari eta egunak eskatzen zuen letxe, udalbatza meza nagusian izan zen Aretxabaletako bandera aurrean hartuta.

Trintxerpeko bandak ka-

leak girotu zituen lehenengo eta meza ostean plazan eman zuen kontzertua, bai dotore jo ere! Aulkiak jartea bururatu zitzaionak ez zuen burutazio makala izan, aurreko gauak bat baino gehiago utzi zuen eta jota.

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

**ANDRA
MARI**
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19



■ Toreroak Atxabaltako kaleetan?



■ Ume eta nagusiek atentzio osoz jarraitu zioten antzerkiari.



■ Txu, txu... badator trena umez gainezka!

Antzerkia izan zen Andramari arratsaldeko ikuskizunik nagusia eta jendeak gustora jarraitu zion kalean gora eta behera Trapu Zaharra taldeari.

Gauak, ostera, pilota partiduan eskaini zituen. Lehenengo partiduan, Mikel Perizena eta Laskurainek 16, Garate eta Urberoagak 22.

Bigarrean, Mikel eta Alzolak 14, Errasti anaiek 22. Hurrengo egunean, barriz, Aurretetxe eta Albizuri 22 eta 9 nagusitu zitzaizen Eguzkiza eta Garderi. Bigarren partiduan, Lasagabaster eta Navarrok 13, Ubera II eta Zabalak, 22. Saritutako urdaiazpikoak Juanito Errasti eta Paco Alzolari tokatu zitzaizen.



■ Ez dagoela afiziorik? Atxabaltan behintzat ezin esan hori.

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
Aretxabaleta



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (2. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Jon Díaz
Karakina

Loramendi 1, • Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



■ Pozik zegoen Jon del Rio, batetik txirrindulari lasterketa irabazi zuelako eta bestetik Irati alboan zuelako.



■ Umeak gustura atzera eta aurrera Detraka antzerki taldeaz.



■ Euskal presoen aldeko bazkariak jende ugari batu zuen txosnetan. Aurreko gabeko aztarna guztiak garbituta ete zeuden?



■ Mutikoez ere bolotan ikasi eta egin gura dute.

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
 Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
 Bertako okina

Mobiliario
ARENAZA

. ALTZARIAK
 . DISEINUA
 . APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
 ARETXABAleta

IZOTZ
 Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65
 ARETXABAleta

Abuztuaren 16 arratsaldeak era guztietako ikuskizun eta ekintzak eskaini zituen. Sokamuturra ausartenentzat, gero eta gutxiago, laster Egoitz Garciaetxabe eta beste bakarren bat geratuko dira. Jotak musika zaleentzat, "Ribera Canta" talde nafarraren eskutik eta mani-

festazioa euskal presoak go-goan zituzten gutzientzat.

Gauean, barrez, "Serial Number" talde atxabaltarraren estreinaldia eta ez zuten batere gaizki egin. Honen ostean, "Freak XXI" taldea, penagarria hain jende gutxi geratu izana, oso kontzertu ona eskaini zuten eta.



■ Nafarroako "Ribera canta" taldeak plaza bete zuten



■ Sokamuturrera irtetera gero eta jende gutxiago animatzen da.



■ Kepa eta euskal presoak ondo gogoan izan ditu jendeak jaietan.



■ "Serial Number" talde atxabaltarrak harrিতuta utzi zituen entzuleak.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA



■ Kontuz, kontuz badator zezena!

Jaietako azkenengo egunean sortutako giroa ez zen nolanhikoa izan. Hanka-gorri taldeak umeak erakarri zituen "petrikiloak eta alkatea" antzezlanarekin.

Goiza aurrera zihoan eta honen ostean herri bazkaria. Atzera begira egon zenak ez zuen gero bazkal-

tzeko tokirik topatu, plaza barreneko eta Artano tabernako aulkietan jan zuenik ere egon zen. 450 lagun inguru batu ziren, arroz barrik, ostera, ez zen inor gelditu. Gustura edan zuten batzuk "Te de los puertos" ere, pitxarkadak eroan zituzten.



■ Adi adi jarraitu zuten umeek petrikiloen lana.



■ Kantabriako sukaldariek paella goxoa prestatu zuten.



■ Bapo janda eh? Oraindik platerak beteta ikusten dira gero.



■ Cristian magoak harrituta utzi zuen bat baino gehiago.

ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43



■ Jai barik eroan gero arrautza.



■ La bomba dantza egiteko modu berria, patatarekin.



■ Kamiseta berdina jantzi eta Andramaixak animatu, bai horixe!

Paregabeko giroa sortu zen bazkal ostean herriko plazan. Cristian del Rio magoak esku joku politak egin zituen mahairik mahai. Kuadrilek, ostera, ederto pasatu zuten jokuekin patata dantzan, arrautza eroaten... Gustura egin zuten barre bai parte hartzaile bai ikusleek.

Arratsaldean, ostera, soka-muturra eta txarranga kaletan zehar. Buruhaundiak ere dinbi-danba ibili ziren gazte eta ez hain gazteak astinduaz. Gualderarte jarraitu zuen giro onak, "Urgabe" taldearekin makinatxo bat geratu ziren plazan dantzan goizalderate.



■ Futbolin biziduna, nork mugitzen ete zituen makilak?



■ Urtero etortzen zaizkigu mexikanoak Andramaixetara.



 TABERNA
ARLUTZ
 MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34

**JOSU
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 943 77 03 08







Udari errepasutxoa

Irailaren 21 edo 22 arte ez da uda bukatuko baina behin oporrak pasatuz gero bukatutzat ematen dugu gehienok. 2000. urteko udak eman beharrekoak eman ditu eta horixe ekarriko dizuet gogora, dena pozgarria izan ez bada ere.

Atxabaltar peto-petoa letxe, oporretan kanpora joan bai baina Andramai-xetan hementxe, beraz, agerian egindako guztiak eta ezkutuan egindako asko ere jakin ditut. Aurretik aipatutako izenak erre-pikatzen ez naiz hasiko baina ez nuke esan barik utzi gura paregabeko giroa izan zela jaietan, batez ere Andramari hirugarrenean.

Horren erantzule, hein haundi batean behintzat, **jai batzordeko kideak** izan ziren. Kamiseta berdinekin jantzitako kuadrilak, herri bazkarian inoiz baino jende gehiago, jokuetan parte hartze haundia, txar-rangaren atzetik kalea bete jende, plazan jendea dantzan... Orain urte batzuetako jaiak gogoratu eragin zizkidan bertako giroak. Herriko rock taldeak ere azkenean erakutsi zigun hainbeste urtean zinema gainean egindako lana. Ez zuten, gainera, batera gaizki egin. Hori bai

gustatu egin behar musika hori. Hiru kolaboratzaile ere izan zituzten abesti batean. Tan-tanak besapean hartuta **Oier Sarasua, Iker Iglesias** eta oñatiar bat igo ziren eskenatokira. Norbait ikusi barik geratu bazen aste bukaera hone-tan Urbinan joko dute.

Gehiegi luzatzen nabile-la ikusita beste kontu batzuekin hastea izango da onena. Bidali duzue opor lekutik postala Aretxagazetara? Ez, ez, orain ez hasi bidaltzen berandu da dagoeneko irabazlea aukeratu dute eta, **Resu Abasolo**. Nik ere bidali nuen afaria irabazteko asmoarekin baina bai zera! hurrengoan izan beharko da.

Kirolak aipatu gabe ezin bukatu nire tartetxoa, kirolari asko eta haundiak ditugulako herrian izango da. **Igor Arenaza** futbol jokalaria Eibarrera datorkigu berraro Logroñesetik pasatu ostean. Ia zorrea duen denboraldi berri honetan.

Bukatzeke agurrik triste-ena **Felix Iñurategiri** eta dolumiñak familia eta lagunei. Badakit, ordea, atxabaltarrok mendi ton-tor batera goazen bakoi-tzean bertan ikusiko dugula, geurekin eroango dugulako.

M. J. Arzak

BESTEAK BESTE/HURRETIK

Andramaixetako hirugarren egunean plazan elkartu ginenok txundituta utzi gintuen Cristian del Rio magoak. Kartak eskuetan hartuta abilezia haundia erakutsi zuen donostiarrak. Nola egiten zuen ordea? Norbaitek trukorik harrapatu ete zion?

Cristian del Rio

"Magook elkarri

kontatzen

dizkiogu trukoak"



■ **Mago izatea, afizioa ala ofizioa da?**

■ Ofizioa izan daiteke, baina oso zaila da. Momentuz afizioa da niretzat.

■ **Zaila da hortaz, bertatik bizitzea?**

■ Hemen bai, Estatu Batuetan adibidez, mago asko daude eta bertatik bizitzea samurragoa da.

■ **Zer da magia?**

■ Zaila da magia zer den esatea. Ikusi eta sentitu egin behar da, zer den jakiteko.

■ **Nola hasi zinen mundu honetan?**

■ Hamalau urtekin hasi nintzen. Orduan Juan Tamariz telebistan ikusten nuen. Bere magia liburuak salgai jarri ziren, eta bertan ikasi nituen lehenengo trukoak.

■ **Gerora nola ikasi duzu?**

■ Liburuak irakurriz, bideoak ikusiz, beste mago batzuekin... Gaur egun Donostian magia klub bat dago, eta bertan elkartzen gara afizio hau gustuko dugunok. Magook elkarri kontatzen dizkiogu trukoak.

■ **Zer eskutatzen du magiak?**

■ Ilusioa. Trukoak esplikatzu gero ilusioa bukatu egiten da.

■ **Zergatik kartak?**

■ Niri kartak gustatzen zaizkit, eta gainera, joko asko eskaintzen du.

■ **Eta zergatik beti poker karta-sorta?**

■ Mundu guztian ezagutzen da poker karta-sorta. Horrez gain, beste sorta batzuetan baino karta gehiago daudenez, eta bi koloretakoak izatean, joko politik egin daitezke.

■ **Zein da mago gustukoena?**

■ Juan Tamariz. Oso mago ona da eta showman haundia, gainera.

■ **Anekdotarik?**

■ Gaur gertatu zaidana. Lasai-lasai bazkaltzen ari nintzen eta hona etortzeko deitu didate. Kartak hartu eta takarraran etorri naiz.

IRAILA**4 ASTELEHENA****■ ARANTZAZURA PEREGRINAZIOA**

Urtero moduan Aretxabaletatik Arantzazura peregrinazioa egingo da. Arantzazun meza goizeko 12:00etan izango da.

8 EGUAKOTXA**■ AGORREKO ANDRAMAIXAK ARIENTZAN**

Eguakotxean tantaia jasoko da Martin Kabarrixa aldean duela. 20:00etan meza izango da, eta ondoren, auzo afaria. Arientzako "Felix ilemoztegia" 6. kartel lehiaketako irabazlea jakitera emango da bertan. Gauean Iñigorekin dantzaldia.

9 ZAPATUA**■ AGORREKO ANDRAMAIXAK**

12etan meza nagusia. Ordu batean ginkana txapelketa. Arratsaldean jolasak, errepika emanaldia eta arosartze lehiaketa. Gauean Iñigorekin dantzaldia.

10 DOMEKA**■ AGORREKO ANDRAMAIXAK**

Kurtzebarrira irteera. Ondoren bonba japoniarak eta tantai botatzea.

■ KURTZEBARRI EGUNA

Goizeko 11:30ean meza emango da tontorrean. Ondoren salda eta txanpaina banatuko du Murruxiko mendi elkar-teak.

16, 17**■ PIRAGUA IRTEERA**

Murruxiko mendi elkar-teko piraguisimo sailak piragua irteera antolatuko du Gallego (Hueska) ibaira. Informazioa Murruxikon martizenetan 19:30etik 20:30era.

**IKASTAROAK****■ BEINKE-LORAMENDI DANTZA IKASTAROA**

San Migel jaietako Beinke-Loramendi dantza ikasteko ikastaroa antolatuko du Tril emakume taldeak. Ikastaroa eguazten eta eguakotxetan emango da Kurtzebarri eskolan 19:30etatik aurrera eta hasiera irailaren 1ean izango du. Ondoren dantza prestatzeko irailaren 20an eta 22an egingo dira saioak arratsaldetako 19:30etatik aurrera. Entsaio orokorra irailaren 28an izango da ordu berean. Ikastaroan partehartzeko beharrezkoa da 18 urtetik gorakoa izatea. Informazio gehiago gura izanez gero, Loramendi elkar-terera zuzendu edo deitu 943 77 09 70 telefonora.

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

BITXITEGIA**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA****BITXIEN-KONPONKETA**

Otalora kalea
Eliza aurrealdean



Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETAKA

**BAZTER-
ALDE
JATETXEA****SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN****AZKARATE
AROSATEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETAKA
943 77 01 24

**ELIKADURA
BEREZIA****T
X
I
L
A
R
R
A**

Durana, 35
Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tel.: 943 79 44 28
ARETXABALETAKA

Zorion agurrak



Aitor Irure
Abuztuak 30
Lagun eta familia-
koen partetik
belarritik tirakada
bat eta zorionak.



Arantza Elkorro
Irailak 5
Zorionak koadri-
lakoen partetik
eta ondo pasa
zure urtebetetze
egunean.



Antzine Mendi
Irailak 7
Nola ahaztuko
gara ba zure
urtebetetzeaz?
Zure lagunak.



Aitor Antxia
Irailak 7
Aretxagazetako
lagunen partetik
zorionak.



Bego Arenaza
Irailak 10
Aretxagazetako
batzordekideak
beti puntu-pun-
tuan zorionak
emateko.



Jose Mari Hernandez
Irailak 12
Familiako enpar-
tetik zorionak
eta urte askota-
rako.



Iban eta Nerea
Irailak 9

Zorionak zuen ezkontza egunean eta
ondo pasa bidaian.
Zuen lagunak.

Jaiotakoak

■ Mikel Egia Barandiaran

Uztailaren 21ean.

■ Asier Davila Lezeta

Uztailaren 28an.

■ Maialen Martin Espeso

Abuztuaren 1ean.

■ Uxue Morales Elorza

Abuztuaren 18an.

■ Eneko Calvo Mendi

Abuztuaren 21ean.

Hildakoak

■ Felix Iñurrategi

Uztailaren 28an. 33 urte.

■ Pablo Herrasti

Abuztuaren 7an. 91 urte.

■ Julian Olabe

Abuztuaren 13an. 89 urte.

■ Jesus Urkia

Abuztuaren 21ean. 69 urte.

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Telebista 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 71 26 28
- Kultur-Etxea 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Mankomunitatea 943 79 30 90
- Murruxo M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikast. 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

Txistuak • Txaloak

Andramaixak atzean gelditu ziren arren, komeni da jaien balorazioa egitea. Aurtengok ezoz berezia izan dutela esango nuke, batez ere, hirugarren egunak. Azken urteetan galduta zuen xarma irabazi du egun horrek. Koadrilak kamisetak jantzita atera ziren kalera, naranjaz, orlegiz... jaietara benetako txispa emanaz.

Egia esan, zeregin horretan aipamen berezia merezi du jai batzordeak. Jaien aurretik eta jaietan ixilean aritu diren arren, lan bikaina eta zoriontzekoa egin baitute. Jai batzordeko guztiei doakie ondorengo txaloa. Animo eta jarraitu horrela!





A

Miradorearen inaugurazioa

skok gogoan izango duzue erretratu hau. Argazkiko koa-drilak orain hamabost bat urte inguru ikuskizun polita eskaini zuen plazan. Plazako miradorea inauguratu zuten, eta ikusten duzuen moduan politiko garrantzitsuak izan genituen herrian.

Ekitaldia espero bezala joan zen. Politikoak ondo baino hobeto babestuta iritsi ziren herrira. Aurretik udal-

tzainek bi lanbretetan bidea zabaltzen zuten, eta hauen ondoren, Renault 9 eta Renault 21 kotxeetan politikoak zetozen, bakoitza bere bizkartzainarekin. Inauguraketan Ardantzak zinta moztu zuen, eta ondoren, hitzaldia bota zuen partenoitik Mendieta orduko alkatearekin batera.

Argazkikoak: Alberto Etxebarria, Isidro Serrano (Pedro

Mendieta), Alfredo Meabe (Jose Antonio Ardantza), Iñaki San Miguel (Eli Galdos), Iñaki Agirre (Jesus Mari Herrasti), Jose Ignacio Altube, Jose Ramon Elkoro (Manolo Zubillaga), Imanol Etxabe, Felix Arrese, Goio Arrieta, Angel Zubillaga, Dabid Arrieta (Carlos Garaikoetxea) eta Dabid Agirre.

Argazkia: Alfredo Meabe
Informazioa: Alfredo Meabe




LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

inpresoak • jai egitarauak • kartelak • liburuak • katalogoak
 • fakturak • tarjetak • pegatinak • aldizkariak • errekordato-
 rioak • sobreak • kalendarioak • presupuestoak • boletinak •
 filmazioak • publizitatea • errifak • loteria • posterrak •
 sarrerak • postulazioak • inpresoak • jai egitarauak • karte-
 lak • liburuak • katalogoak • fakturak • tarjetak • pegatinak
 • aldizkariak • errekordatorioak • sobreak • kalendarioak •
 presupuestoak • boletinak • inpresoak • jai egitarauak • kar-
 telak • liburuak • katalogoak • fakturak • tarjetak • pegati-
 nak • aldizkariak • errekordatorioak • sobreak • kalendarioak
 • presupuestoak • boletinak • filmazioak • publizitatea •
 errifak • loteria • posterrak • sarrerak • postulazioak • inpre-
 soak • jai egitarauak • kartelak • liburuak • katalogoak • fak-
 turak • tarjetak • pegatinak • aldizkariak • errekordatorioak
 • sobreak • kalendarioak • presupuestoak • boletinak •
 inpresoak • jai egitarauak • kartelak • liburuak • katalogoak
 • fakturak • tarjetak • pegatinak • aldizkariak • errekordato-
 rioak • sobreak • kalendarioak • presupuestoak • boletinak •
 filmazioak • publizitatea • errifak • loteria • posterrak •
 sarrerak • postulazioak • inpresoak • jai egitarauak •
 kartelak • liburuak • katalogoak • fakturak • tarjetak •
 pegatinak • aldizkariak • errekordatorioak • sobreak •

Araba Ibilbidea
 20550 ARETXABAETA
 Industrialdea F-0-4
 Tfnoa.: 943 79 18 44
 Faxe: 943 79 29 41



EGUZZKIGRAF

inprimategia



fordfocus

bere klaseko onena

ford **focus**-ek auto salduenen artean harrera onena lortu du.

	Batez bestekoa	Jokaera/ egonkortasuna	Diseinua/ estetika	Bizigarritasuna	Direkzioa	Erosotasuna	Ziurtasuna	Soinu maila
ford focus	8,29	9,49	9,41	9,29	9,05	8,88	8,68	7,83
Volkswagen Golf	8,28	8,34	9,02	7,79	8,77	8,6	8,65	7,33
Opel Astra	7,85	8,6	9	7,77	8,33	8,1	8,16	7,65
Citroën Xsara	7,61	8,17	8,56	8,22	8,23	8,15	7,96	6,58
Renault Megane	7,6	7,66	8,77	7,93	7,91	7,97	7,99	6,09
Peugeot 306	7,31	8,37	8,41	7,7	7,94	7,44	7,97	5,81
Segmentuaren media	7,55	8,02	8,52	7,86	8,07	7,73	7,96	6,43

Iturria: Autopista aldizkariak 322.000 auto gidariren artean egindako 10. Makro inkesta (2.124.zenb., 2000ko martxoaren 28tik apirilaren 3ra arte.)

DEBA GARAIKO
 BANATZAILE OFIZIALA

MUGARRI



Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
 Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

GRUPO **ARKAUZ**


ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert** 


Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxes: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Etzerako alzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxes: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR 

Mitarte 3 • Tel. / Faxes: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etzerako alzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxes: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Alzariak**en (Araba Ibilbidea, 20)
2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

pta.

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)